

Gabonetako Kontzertua

Kantu Gregoriar Abesbatzarekin

Ismael Fernández de la Cuestaren eskutik sortutako Kantu Gregoriar Abesbatzaren 25. urteurrena dela eta, Santa Maria Katedralak Gabonetako Kantuen Kontzertu berezia hartuko du datorren abenduaren 20an. Emanaldia arratsaldeko 19:30ean hasiko da, eta eguneko Gabonetako meza gisa egongo da egituratuta, liturgia erromatar gregoriarren arabera.



Egitaraua Sarrerako Prozesioari dagokion kantuarekin hasiko da, Puer natus in Bethleem pieza, hain zuzen ere, eta, ondoren, tradizio gregoriarreko Gabonetako hirugarren mezaren, abenduaren 25eko goiz erdian ospatzen zenaren, ohiko egiturekin jarraituko du. Hala ere, emanaldi bereziaren amaieran, Descendit de celis, erresponsoa, gauerdiko mezarekin abesten ziren Maitinetako pieza ospetsuenetakoa, abestuko da.

Kantu Gregoriar Abesbatza Ismael Fernández de la Cuestak, Santo Domingo de Silo-seko monje Beneditarren abesbatzako zuzendari ohiak, sortu zuen "mendebaldeko musika kulturen oinarrian" dagoen kantu

motaren balioa nabarmentzeko helburuarekin. Berarekin batera, hoguei lagunek osatzen dute gaur egun, bertako kantari askoren jatorriarengatik Arabari oso lotuta dagoen, Kantu Gregoriar Abesbatza.

Zaharberritze prozesua abian jarri zenetik Abesbatzak Katedralean abestuko duen hirugarren aldia izango da. Izan ere, 2012ko ekainean gangetan jardun zuten, obretako aldamioetan jarrita, eta hori "emozio sakoneko" unea izan zen beraientzat, Fernandez de la Cuestak dioenez.

Zorionak eta Urte Berri on

Santa Maria Katedrala Fundazioak jai zoriontsuak eta 2020. urte oparoa opa dizkie ekimen honetan parte hartzen duten pertsona guztiei, lagunei, sortzaileei, "zutabeei" eta, oro har, Gasteizko eta Arabako gizarte osoari. Urte horretan, 20 urte beteko ditugu proiektu paregabe eta ilusionagarri honen zerbitzura.

Eskerrik asko gurekin batera ibiltzeagatik, eta berritasun gehiagorekin itxarongo dizuegu, urtariletik aurrera, gure XX. urteurrena ospatzeko.

Katedraleko pantaila handia

Eva Garcia Saenz de Urturik idatzitako izenburu bereko liburuan oinarritutako "El Silencio de la Ciudad Blanca" filmaren estreinaldiak berehalako isla izan du Katedralera egindako bisitetan. Zintan agertzen diren lekuei buruzko kontsulten gorakadaren ildotik, hainbat ekimen jarri dira martxan "Kraken"-en jarraitzaileen jakin-mina asetzeko. Hori da gertatzen da Gasteizko Udalak eleberrian agertzen diren leku nagusietara antolatutako duen bisita bateratuekin. Jarduera horretan parte hartu zutenek %40ko deskontua izan zuten sarreraren prezioan.





Familiei zuzendutako hurrengo bisitak

Familiei zuzendutako hurrengo bisitak datozen egunetan izango dira:

Abenduak 21	17:00	euskeraz
Abenduak 26	11:30	euskeraz
Abenduak 28	17:00	gaztelaniaz
Abenduak 30	11:30	gaztelaniaz
Urtarrilak 4	17:00	gaztelaniaz

Xehetasuna

Katedraleko estalkien hobekuntza funtzionalean eta konponketa lanetan, elementu erresistenteak konbinatzen dituen egitura sistema mistoa erabili da 1998. urteaz geroztik. Besteak beste zur ijaztuz eta torneatuz egindako zutabeak edo besoak, lehendik dauden zurezko elementuekin, estalkien edo forjatuen habeeekin eta zinbriekin, eta altzairu herdoilgaitzarekin konbinatu dira, elementu horien arteko zenbait lotura eratzeko eta zurezko egitura multzoei harrizko eraikuntza historikoaren gainean eusteko.

Elementu berezi horietako bat altzairu herdoilezinezko errotulua da, bi zorrok eta bien artean txertatutako bola esferiko batek osatua, zurezko egituraren eta fabrikako obraren arteko lotura egituratzeko balio duena. Hasierako diseinua urte hartakoa da, bisitaren sarrerako eskailera berriaren obran sartu baitzen, eta hobetuz eta erabili den egoeretara egokitzuz joan da.

Egiturazko artikulazioaren funtzionamendu mekanismoaren helburua, zutabeetan gerta daitezkeen flexio efektu posibleak fabrikako beheko obrara zuzenean transmititzea saihestea da, obra hori ez baitago egiturazko solizitazio mota horiek xurgatzeko prestatuta. Horrela, aldaketa termikoen zein haizearen ondoriozko zurezko egituraren berezko mugimenduek harrizko obran eraginik ez izatea lortu nahi da. Harrizko obra hori delikatuagoa da, eta ez da horiei eusteko gai, pitzadurazko kalte txikirik jasan edo harlanduzko lanen bat dislokatu gabe.



Lankidetza Arlesekin

Fundazioaren bulegoek, kontserbatzaileekin eta zaharberritzearen arloko profesionalekin egindako laneko bilera jaso zuten azaroaren 11n eta 12an, "Sandstone" dokumentazio softwarea sustatzeko xedez. Ekimena, Santa Maria Katedrala Fundazioa, zaharberritze arloko jardunbide onen erakunde gisa, zuzentzen ari den funtzionalitate berrien garapen prozesuaren barruan dago.

Bileran "Sandstone" programaren bertsio berria aurkeztu zen, eta software hori Arleseko Saint Trophime klaustroaren zaharberritze lanetan aplikatzeko moduari buruz hitz egin zen. Saint Trophimeko Fundazioa eta Klaustroko teknikariek gain, World Monuments Fund eta New Yorkeko Integrated Conservation Resources (ICR-ICC) enpresetako kontserbadoreek ere hartu zuten parte topaketan, eta baita Sabeg Bouzid Ville d'Arleseko Gizateriaren Ondare zuzendariak ere.

Arantza González Oribe hileta-oharra

Joan den azaroaren 1ean galera handia izan genuen gure katedraleko langileen "familia txikian". Arantzak, zaindari eta langile beteranoenetako batek, utzi egin gintuen, eta jada inoiz betekoz ez den hutsunea utzi zuen guran.

Hasieratik sartu zen proiektuan, 2000. urtean, bisita gidatuak inauguratuz eta gainerako taldekideekin batera, bere bizitzaren zati bat bertan utziz, berea zela sentitzen zuelako.

Arantza erreferente izan da guretzat guztiontzat, lankide handia, langilea, energiagaz eta umore onez betea. Bere ondoan lan egitea plazer handia izan da, eta eza gutzea benetako zortea. Katedral honetako zutabe, nabe eta korridoreen artean, beti egongo da gurekin. **Agur Arantza!!**

